

Transgenikoak eta Montrealgo Protokoloa

• CARLOS ALONSO CIDAD •

[EKOLOGISTAK MARTXAN TALDEKO KIDEA]

Produktu transgenikoak (genetikoki aldatutako organismoak) dituzten elikagaiak gure dietaren osagai dira dagoeneko, horien egokitasunari eta izan ditzaketen ondorioei buruzko eztabaida soziala planteatzeko aukerarik izan aurretik eta jendeak produktu horiek zer diren edo zer esan nahi duten jakin baino askoz ere lehenagotik; herritarrek ez du betarik izan produktu horiei buruzko iritzi aske eta kritikoa izateko eta zer jan nahi duen erabakitzeke.

Zertaz ari garen jabetzeko, oinarriko kontzeptu eta datu batzuk emango ditugu. Ingeniaritza genetikoko teknikak erabiliz, organismo transgenikoei organismo horiekin ahaidetasunik ez duten beste espezie bizi batzuetatik hartutako edo artifizialki sortutako material genetikoa (geneak) sartzen diete.

Gaur egun genetikoki aldatutako artoa, koltza, soja eta kotoia produzitzen eta merkaturatzen dira. Bestalde, Europan onartuta edo onartzeko prozesuan dago tabakoaren, txikoriaren, patataren, tomatearen, erremolatxaren eta beste hainbat produktu transgenikoren landaketa.

Produktu horien salmentak 23.000 milioi dolarreko irabazia sortu du 1999an, iaz baino % 30 gehiago eta 1995ean merkatura irten zenean baino 30 aldiz gehiago. Etengabe eta oso azkar hazten ari den merkatuaz ari gara, herrialde eta multinazional gutxik kontrolatzen dutenaz. Estatu Batuen esku dago landatutako lur-sailen % 72. Munduan, hazi transgenikoen merkatura bost multinazionalen esku dago, baina, horrez gain, hazi konbentzionalen merkatuaren % 23 ere haien

esku dago eta pestiziden merkatuaren % 60 ere bai.

Berrikuntza teknologiko esperimentalekin hasieran beti gertatzen den moduan, desadostasun zientifikoak sortu dira produktu horiek izan ditzaketen ondorioei eta inplikazioei buruz, ingurugiroan, gizakion osasunean edo nekazaritzako elikagaietan izango duten eraginari buruz. Zalantzak ugari dira, ziur dakiguna, berriz, ezer gutxi; horiek argitzeko esperimentazioak epe luzeagoak behar ditu, epe ertainera eta epe luzera zein ondorio izango dituen jakin ahal izateko.

Hitzekin konpon al daiteke?

Testuinguru honetan, Montrealen duela gutxi sinatutako Biosegurtasunari buruzko Protokoloa aztertu behar da. Nazioarteko hitzarmen honi behin eta berriro boikot egin diote Estatu Batuek eta hazien eta aleen beste produktore handi batzuek (Kanada, Australia, Argentina, Txile eta Uruguai); 2002. urte arte aplikatuko ez den hitzarmen honek malabarismoak eta hitz-jokoak erabiltzen ditu ia inolako araurik ez emateko. Hau da, orain arte bezala jarraitzeko.

Hiru alderdi garrantzitsu eztabaidatu dira: produktu motak eta hauen etiketak, mugak ezartzeko arrazoi zientifikoak eta herrialdeek produktu horiek merkaturatzeko duten askatasuna.

Azken alderdi horri dagokionez, honako erabaki hau hartu zen: «Protokoloa ez da nazioarteko gainerako hitzarmenen aldaketa gisa interpretatu behar, baina ez dago horien menpe.» Formula ulertezin eta anbiguo horren atzean protokoloa Munduko Merkataritza Erakundearen hitzarmenen menpe dagoen ala ez ikusi behar da. Ez da huskeria gero. Herrialde batek transgenikoen inportazioak atzera bota ditzakeen ala ez eta hala jokatzu gero

Munduko Merkataritza Erakundeak sustatutako «merkataritza librearen» printzipioetatik ondorioztatutako zigorrak jasoko dituen ala ez jakitea da kontua.

Bada argi geratu ez den beste kontu bat: zer da herrialde batek produktu transgenikoen inportazioari uko egiteko izan dezakeen «arrazoizko zalantza zientifiko»? Epe ertainera izan ditzaketen ondorioak ezin aurreikusi direnean eta ezezagunak direnean, «arretaz jokatzeko printzipioak» pazientzia izatea aholkatzen digu eta promotoreek produktu berriek kalterik egiten ez dutela frogatu arte itxarotea. Hala ere, ez dirudi interpretazio hori nagusituko denik.

Azkenean, protokoloak produktu transgeniko bizidunak (haziak eta aleak) baino ez ditu arautu, horien deribatuak –irinak, pentsuak eta elika-

“
*Montrealgo
Protokoloak produktu
transgeniko
bizidunak (haziak eta
aleak) baino ez ditu
arautu, horien
deribatuak kontuan
izan gabe*

gaiak – kontuan izan gabe. Lehenengo-ei baino ez zaie ezarri etiketatzeke obli-gazioa; gainera, etiketa nahiko generi-koa izango da («kargamentu honek al-datutako organismo bizidunak izan ditzake») eta ez da egin diren aldaketei, izan ditzaketen arriskuei edo beste edozein gairi buruz informazio osagar-rririk eman behar. Anbigutasun ho-rrek, kargamentuetan produktu transgenikoak eta konbentzionalak nahasteko ohiturarekin batera, aztar-na guztiak ezabatzen ditu eta kontsu-mitzaileari azken produktuan zer-no-lako presentzia izango duen jakitea ga-larazten dio. Elikagaien fabri-katzaileak berak ere ezin du jakin zein lehengai erabiltzen ari den.

Europako Batasunak eta Greenpea-ce erakundeak balorazio positiboa egin arren –arrakastatsutzat eta inge-niaritza genetikotik babesteko urrats historikotzat jo dute–, benetako aban-tailak oso txikiak dira. Estatu Batuek negoziazioa onartzea eta gai hau arau-tzen hastea lortu da, baina oraingoz ez dira edukiak zehaztu. Historikoki ger-tatu izan dena berriro ere errepikatuz, errealitate setatiak tragediaren bat ekarri behar digu oraingoa ere arris-kuaz ohartzeko (DDT, beste pestizida batzuk, energia nuklearra)?

Dena dela, herritarrei gauzak beren kabuz ezagutzeko eta erabakitzeke eskubidea behin eta berriro ukatzen zaie, eta edonor asaldatzeko modukoa da hori. Izango al dugu inoiz zer jaten dugun jakiteko eskubiderik? Une ho-netan transgenikoak jada gure otor-duetan ditugu, horixe da egiaz daki-gun gauza bakarra.

**Gaztelaniatik itzulia*

Berdintasunaren legalizazioa

• MARIA TERESA RODRIGUEZ BARAONA •

[EUSKO LEGEBILTZARREKO TALDE SOZIALISTAKO BOZERAMAILEA ENPLEGU GAIETAN]

Hainbat iritzi kritiko agertu di-ra Frantzian ordezkari-tza po-litikoaren esparruan gizon eta emakumeen artean izan beharreko parekotasunaz onartu den legeari bu-ruz. Ezin da esan kritika guztiak funts-gabeak direnik, baina argi uzten dute legea aplikatzeko orduan hainbat ara-zo izango direla; horregatik, ziur aski, zenbait ñabardura egin beharko dira haren garapenean. Hala ere, hori ez da oztopo onartzeko Frantziako gobernu sozialistak arlo horretan egindakoa egokiena izan dela. Biztanleen erdiek XX. mendea oso aurreratuta egon arte jasan duten desberdintasun errotiko eta erabatekoa zuzenduko bada, beha-rrezkoa izango da ekintza positiboko neurri zorrotzak hartzea, eta lege bidez eskatzeak soilik berma dezake hartu-ko direla.

Hala bada, noizbait sortu behar zen

beharrezko aurrekaria. Eta ez da bate-re arraroa aurrekaria gobernu aurre-razale batek sortzea, eta hori, gainera, Frantzian gertatzea, herri hori duela bi mendetik aitzindari izan delako Euro-pan ideien garapenean. Bestalde, in-dar politiko guztietako parlamentario-ek eta emakumeek bat egin dute gai honetan, eta, ondorioz, parekotasuna-ri buruzko legearen inguruan oso adostasun handia lortu da, Frantziako Asanbleako eskuineko alderdi nagusiak berak ere legearen alde agertu di-relako. Horregatik, parekotasunak lor-tu nahi duen helburua eskuinaren eta ezkerraren arteko borrokatik harago kokatu da, mentalitatea aldatzearekin baitu zerikusia, edo, nahiago bada, zi-bilizazio aldaketarekin.

Erreferentzia argi zegoen duela hainbat urtetatik. 1992ko azaroko Atenasko adierazpenak batere zalan-

tzarik gabe adierazi zuen: «Demokra-ziak ezinbesteko du parekotasuna, bai ordezkari-tzan bai nazioetako gober-nuan». Alderdi Sozialistarentzat hori ez zen kontu berria. Izan ere, lau urte lehenago, PSOEren XXXI. Kongre-suan, alderdi barrurako kuota sistema bat onartu zen; erabakiak hainbat kri-tika jaso zituen, baina bide bat ireki zuen Espainian, gainontzeko indar po-litikoek geroago ibiliko zutena. Eta, hain zuzen ere, PSOEek XXXIV. Kon-gresuan onartu zuen bere estatutue-tan demokrazia parekidea, gizon eta emakumeen ordezkari-tza bermatzeko oinarrizko printzipio gisa; ondorioz, bi generoetako edozeinek ezin du %60tik gorako ordezkari-tza izan, ez eta %40tik beherakoa ere, esparru eta kargu mota guztietan.

Alde horretatik, hauteskunde haue-tan Diputatuen Kongresurako eta Se-

naturako prestatu ditugun zerrendek argi uzten dute gure estatutuei jarrai-tzen diegula. Haien arabera, eta berriz ere 1996ko hauteskundeetako emai-tzak gertatuz gero, bi ganbaretako Tal-de Sozialistan emakumezko parla-mentarioen kopurua %43koa izango litzateke. Hortaz, hori da gure jarrera. Eta sozialistok horregatik lortu nahi dugu hemen ere, Frantzian bezala, de-mokrazia parekidea alderdien boron-datezko jardunaren emaitza hutsa baino zerbait gehiago izatea, legez araututako eskakizun bat izatea, ale-gia. Hain zuzen ere, hori da gure hau-teskunde konpromisoetako bat. Gure programan dugu idatzita. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sus-tatzen egin dugun bidea ikusita, PSOE prest dago jauzia egiteko.

**Erredakzioan itzulia*